

BEKAREN IZENBURUA:

Euskal Herriko baxurako flotaren kudeaketa-neurrien inpaktu bioekonomikoaren analisisa.

DESKRIBAPEN LABURRA:

Beka honen helburu nagusia da Euskal Herriko baxurako flotarako kudeaketa-neurrien inpaktua ebaluatzea, bai arrantza-baliabideen jasangarritasunari dagokionez, bai flotaren errendimendu sozioekonomikoari dagokionez. Bereziki, hauek aztertu ahal izango dira: harrapaketa- eta esfortzu-kontrolaren arauetan oinarritutako kudeaketa-estrategiak; toki eta aldi jakin batzuetarako itxierak; egindako harrapaketa guztien lehorreratzeari buruzko legedi berriak eragindako neurriak; eta eskualdeetako urte anitzetarako planak. Horretarako, moldatu egin beharko dira, bai Euskal Herriko baxurako flotaren arrantza-jarduera, bai hark ustiatzen dituen arrainen populazio nagusien dinamika.

BEKALDIAN LAN EGITEKO ZENTROA (Derio, Sukarrieta edo Pasaia):

Sukarrieta. Aukera egongo da beste zentro batzuetara joateko (Pasaia eta Derio).

UNITATEA/ARLOA/TUTOREA:

Itsas Ikerketako Unitatea. Arrantzaren Kudeaketa Jasangarria. Leire Ibaibarriaga doktorea.

HAUTAGAIAREN PROFILA:

Titulua: Matematika, Ekonomia, Biologia, Fisika edo Itsas Zientzietako lizentziaduna.

Espezialitatea:

Hizkuntzak: ingelesez aritzeko erraztasuna; ahal dela, maila aurreratua izatea.

Beste zenbait: estatistikako, zenbakizko metodoetako eta programazioko ezagutza izatea (R, C++, FORTRAN...).

MASTERRA:

Masterra estatistikan eta/edo modelizazioan.

OHARRAK:

Profil kuantitatibo handiko beka bat da; beraz, nahiz eta ez den ezinbestekoa Matematikako lizentziaduna izatea, interesa eta esperientzia izan behar dira estatistika- eta programazio-arloan.

BESTE ZENBAIT: